


B

BARREN

Waterpoloan murgilduta

TOKIKOM

Ainhoa Agirre, Iraide Sarria eta Amaia Lersundi



fadek

errosario 31
943 742 692

Zuei esker,
30 urte bete ditugu ibilian,
eta jarraitu nahi dugu ilusioz
elkarrekin bidea egiten.

Joskun Inés



Cyclone eta **mio** elkarren osagarri fit skin for life

Zelulitisaren kontrako borrokan ia gehiena probatuko genuen honezkerok: kabitazioa edo ultrasoinuen bidez eta kirurgiarik erabili beharrik gabe pilatutako grasa kentzeko sistema, ultrasoinuak, irrati-frekuentzia... Ezagunak dituzu, ezta? Zer esango zenuke, baina, teknika aurreratatu horietako bost makina berean batuta aurkezten dizkizugula esango bagenizu? **Cyclone** deitzen da makina, eta urtebete pasa bada Alire Estetikan erabiltzen hasi ginenetik. Elkarren osagarri diren **bost teknika horien bidez**, gorputzean pilatutako gantz kopurua murriztu eta gure silueta fintzen laguntzen digu Cyclonek.

Hifu, ultrasoinuak, irrati-frekuentzia monopolarra, irrati-frekuentzia bipolarra eta C.R.S. sistema uztartzen ditu Cyclonek, denak ere punta-puntako teknikak, medikuntza munduan oso erabiliak. Ultrasoinu fokalizatu bidezko sistemari esker, **zelula koipetsuetan lesio txikiak eragiten ditu makinak, gero ultrasoinu eta irrati-frekuentzia monopolarren bidez koipe horiek desegiteko eta azala gogortzeko**. Azkenik, hirugarren pauso batean, **azala modelatu, drainatu eta tenkatu egiten da, C.R.S sistemaren bidez**. Gantza eta pilatutako likidoak kendu, bolumena gutxitu eta azala gogortzeko ezinbesteko laguna dugu gaur Alire zentroan **Cyclone** makina. Sesioak irauten duen ordubete eta laurden inguruan, gure profesional bat zurekin egongo



da uneoro, bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen diren teknikak txandatzten, ahalik eta emaitza onena lortzeko.

Horri guztiari laguntzeko Mio kosmetika eskaintzen hasi gara.

Osagarri paregabea. **Printzipio aktibo-en kontzentrazio altuko kosmetika da Mio, parabenorik, kontserbagarriarik, xentroestrogenorik eta Phtalatosik gabea. Bi hitzetan esanda: segurua eta eraginkorra.**

** Bono bereziak eskaintzen ditugu bi tratamendu osagarriak hartzen dituenarentzat.*

estetikaalire
CYCLONE

Upaiz zaharra, 1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar

**ARGALTZEKO
TRATAMENTUA**



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Amaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
ERAKUTSAREN TOGAKOITZA

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO URDIA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Kale-izenak direla-eta

Udalak bere garaian kale izenak ofizialdu zituen. Kasu batzuetan jatorrizko izena berreskuratzeko eta beste batzuetan euskarazko grafia zuzena jartzeko. Horren berri emateko, Udalak, euskarri desberdinak erabili zituen: mapak, prentsa-oharrak, liburuxkak, erakusketak... eta horren zabalpenari bukaera emateko, kaleetako plaka berriak jarri zituen.

Hala ere, konturatu gara herritar askok eta establezimenduek ere, lehengo izenak erabiltzen jarraitzen dutela, izan ere, jakin badakigu, ohiturak aldatzea asko kostatzen dela. Hori horrela, berriki, izena aldatutako kale horietako bizilagunei gutuna bidali zaie gogorarazteko izen ofizialak erabili behar direla.

BARREN aldizkarian, kale horietako bizilagun batek idatzi duena ikusita, jakin dugu baten batzuk, behintzat, horren jakitun direla, eta hala erabiltzen dutela. Eskerrik asko!

Tamalez, gutxi dira oraindik horrela egiten dutenak, beraz, gutuna bidaltzearen arrazoia horixe besterik ez da izan.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu izen zuzena erabiltzen hasi zaretenoi, eta animatu nahi ditugu oraindik lehengoa erabiltzen dutenak izen zuzena erabiltzera.

Udalaren Euskara Saila

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez, Mendaroko Txirindulari Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue joan zen domekan, apirilaren 12an, Kilimon Trail mendi lasterketa handi egin zenuten guztioi. Lehengo eta behin, mila esker proba hau babes-tu duzuenoi: Mendaroko Udala, BERRIA egunkaria, Podoactiva, MYL, Danobat Group, Egile Corporation, Coca Cola, Txarriduna jatetxea, Landa erretegia, Txirristaka, Uztargi eta Lerun tabernak, Coviran denda, Mauri harategia, Mausitxa eta Altzola-Berazeta, Iriondo Kirolak eta GYS Astigarraga Elgoibarko kirol-dendak eta Lizarpe Mendi Kluba.

Eskerrik asko, era berean, batera zein bestera proba hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker baserritarroi, ibilbidea markatzen lagundu diguzuen losu Juaristi eta Gotzon Zulaikari, anoa postuetan egotea egokitu zaizuen guztioi, bidea markatzeko erabilitako materiala batzen jardun duzuenoi, argazkilarioi,

eta zuei, losu Juaristi eta Maite Maiora, kanpo harremanetan egindako lanagatik. Eta bukatzeko, zorionak eta eskerrik beroenak, zuei, parte-hartzaileoi, lasterketa hau antolatzen jarraitzeko indarra eman diguzuelako. Datorren urtean gehiago, eta hobeto!

Mendaroko Txirindulari Elkarteak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.

Erretratu zaharra



1978

Aste honetako erretratu zaharra Jesusa Kortaberriak ekarri du BARRENERA. 1978. urte inguruko erretratu honetan ageri direnak San Pedro auzoko Otsogain elkarteko bazkideak dira gehienak. Elkarteko bazkideek irteerak egiten zituzten noizean behin, eta argazki hau ere irteera horietako batean ateratakoa da. Ikus ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: **Zutik:** Autobus gidaria, Luis Oñederra Garro, Bizente Lazkano (†), Santi Zigorraga (†) eta bere emaztea, Azpiazu (†) eta Josefa Astigarraga (†), Jesusa Kortaberria, Eulogio Arismendi (†), ezezaguna, Ortuoste (†), ezezaguna, ezezaguna, Consuelo Otaegi, Juanito Gorostiza (†), Cruz Agirre (†). **Eserita:** Nikolasa Osoro, Petra, Felisa 'Umaixo' (†), Dorotea Garai, Pedro Ezkurra, Maria Luisa, Pedro Gabilondo (†) eta emaztea, Garai (†).



**Mari Jose
Ruiz Porres**
Doktorea
GINEKOLOGOA
mj.ruizporres@gmail.com

Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857

**Zu zaintzeko zerbitzu onena eskaintzeaz gain,
profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu
atseginari eusten jarraituko dugu.**



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 beheko
Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 676

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezarria
Laketak: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUP
PAINALMI



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



634 errepidea hondatuta dago: "Gasolindegi inguruan erabat hondatuta dago 634 errepideko asfaltoa. Pare bat zatitan zulo handiak daude, eta autoak errepidearen bazter bazterretik joaten dira, zuloak ekiditeko. Horrek arriskua sortzen du, eta egunen baten ezbeharren bat pasatuko da. Asfaltoa konpondu egin behar dela iruditzen zaigu".



Aterkia ostu didate kiroldegian: "Martxoaren 27ko eguerdian Elgoibarko kiroldegian aterkia lapurtu zidaten. Lapurtu duenari esan nahi diot oraindik aukera duela aterkia berriro hartu duen lekuan uzteko. Besteen gauzak hartzeko ohitura duena lapurra da".



Txalo bat Kilimon Trail lasterketako antolatzaileei: "Mendaroko Txirrindulari Elkarteak bosgarren urtez antolatu du Kilimon Trail mendiko lasterketa, eta duarik gabe, txalo bikaina merezi dute. Sekulako festa izan zen domekan Mendaron. Herri guztia hantxe batu zen lasterkariei animoak emateko, eta dena primeran irten zen. Segi horrela!"



Joan zen asteko kexaren harira, Kirol Patronatuaren azalpena eman du Ramon Mujikak: "Bi aldiz jarri ditugu panelak spinning bizikletetan, eta hamabost egun ere ez zuten iraun, berriz ostu zituztelako. Panel bakoitzak 125 eurotik gora balio dituela kontuan izanik, gehiago ez jartzea erabaki genuen. Badakigu errugabeek jasan behar dituztela erabaki honen ondorioak, baina Kirol Patronatua ez dago dirua botatzeko. Kamerak egon arren, ezin izan dugu egilea identifikatu".



Maalako parkea oso ondo geratu da: "Orain bai! Jarleku berriak jarri dituzte Maalako parkeko estalpearen barruan, eta oso ondo geratu da. Aire libreko gune irekiak politagoak izaten dira estaliak baino, eta hasieran zalantza handiak izan nituen Maalako gune estaliarekin, baina aitortu behar dut gustatu zaidala. Elgoibarren horrelako gune bat behar zen, eta Maala toki egokia da horretarako".



Herritarrentzako informazio gune izango da maiatzetik aurrera Trenbide kaleko igogailua

Herriko igogailuak 24 orduz egongo dira martxan aurrerantzean

Trenbide kaleko igogailua joan zen barixakuan jarri zuten martxan. Bi igogailu eta pasabide batek osatu dute proiektua. Lehenengo igogailua Trenbide kalean dago, eta pasabideari esker, Pista Beltzerainoko bidea egin dute. Handik beste igogailu bat hartu behar da, San Rokeraino iristeko. Udalak 302.348 euro inbertitu ditu obra honetan. Igogailu honi esker San Roke auzorako irisgarritasuna hobetu da, baina hori baino gehiago izango da igogailu berria, izan ere, herritarrentzako intereseko informazioa emateko ere erabiliko dute. Igogailuaren oinarrian trenbide inguruko historia jasotzen duen panela jarri dute. Besteak beste, leku horretan Forjas Elgoibar izeneko enpresa zegoela azaltzen du panelak eta enpresa horretan mailuak eta bestelako hainbat tresna egiten zituztela. Udal arduradunek esan dutenez, herritarrek ere “mailu” izena eman diote igogailuari, “leku horren historiarekin bat datozen izena”. Horrez gain, trenbidea lehen nolakoa zen erakusten duen irudia ere jarri dute, eta 3,150 zenbakia ere ageri da tamaina handian, Euskotren sarearen puntu kilometriko horretan kokatzen delako Elgoibar.

Informazio estatikoaz gain, maiatzetik aurrera informazio panel digitala jarriko dute igogailuaren kanpoaldean. Led sistemaren bidez funtzionatuko du, eta herritarrentzako intereseko informazioa emango dute bertan.

Igogailuak 24 orduz martxan

Gaurtik aurrera, bestalde, Toletxeko, Osasun Zentro aurreko,



Sigmako eta Trenbide kaleko igogailu hauxe bera ere 24 orduz egongo dira martxan. Arduradunek esan dute inzidentzien jarraipen zehatza egingo dutela, izan ere, Udalak erantzuteko duen ahalmena ez da berdina gauez edo egunez. Dena ondo joango dela espero dute, baina inzidentzia horien arabera hartuko dituzte erabakiak.

83 urteko emakumea hil da, autoak harrapatuta



Martitzen iluntzean gertatu zen ezbeharra, 20:10ak aldera, Guass pareko biribilgunetik Urazandirako bidean. Auto batek 83 urteko emakumea harrapatu zuen, eta Mendaroko ospitalera eraman zuten andrea, zaurituta, baina goizaldera hil egin zen. Gertatutakoa ikertzen ari da Ertzaintza.

Aurkeztu dute Sofia Vazquez, Elgoibarko PPko alkategaia

Atzo eguerdian aurkeztu zuen PPK Udal Hauteskundeetarako alkategaia: Sofia Vazquez. Donostian jaioa da, Irunen bizi da, 39 urte ditu eta azken bost urteotan dihardu politikagintzan. Urtebete egin zuen Irungo Udalean, eta azken lau urteotan Eibarren izan da zinegotzi. “Ilusioz” dator Elgoibarrera, eta elgoibartarren ongizatearen alde lan egiteko asmoz datorrela adierazi du. Zergak ez igotzeko apustua egingo du, Udalak sortzen duen enpleguan elgoibartarrak kontratatzeke ahalegina egingo du, eta Gizarte Ongizate Saila indartzea izango da bere lehentasuna. Era berean, herriko azpiegiturak zaindu nahi ditu, eta EAJk azkenengo hauteskunde kanpaina egin zituen “promesak” egi bihurtzeko ahalegina egingo du. Besteak beste, Pilarreko zaharren egoitza, Aita Agirre kultur-gunea eta kiroldegi berria aipatu ditu.

Hitzaldia **‘Banketxeen gehiegikeriazko praktikak’**

Banketxeen gehiegikeriazko praktikei buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak eta Debabarreneko Etxe Kaleratzeak Stop elkarteek. Gipuzkoako Stop Desahucios taldeko Jose Mari Erauskin eta Maite Ortiz abokatuak izango dira hizlariak, eta besteak beste, mailegu hipotekarioetan bezeroak sinatzen duen momentutik banketxeak zein “gehiegikeria” egiten dituen azalduko dute. Bereziki abal emaleei dagokien klausulei buruz hitz egingo dute. Antolatzaileek esandakoaren arabera, klausula horien eraginez abal-emai-leak ere ari dira etxetik kaleratzen, eta horri buruzko informazioa emango dute. Hitzaldia martitzenean izango da, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 45 minutukoa izango da, eta bukaeran herritaren galderak egiteko aukera izango dute.

Irudia **Suteak**

Bi sute izan dira aste honetan Elgoibar inguruko mendietan. Astelehenean izan zen lehenengoa: Uparitzaga baserria eta Meka Lanbide Heziketako ikastetxearen arteko pinudian piztu zen sutea. Urruzuno bailarako baso zatia garbitzen ziharduten baso mutilek suhiltzailei deitu behar izan zieten, sua kontrolatu ezin zutela konturatu zirenean. Haize bolada batek Albizuriko Meka ikastetxe ondoko landaretzara zabaldu zuen sua, eta badaezpada ikasleak ikastetxetik atera zituzten.

Eguaztenean, berriz, Azkarate bailarako Otsourtia inguruko basoan izan zen sutea. Goizaldeko 4:00ak aldera piztu zen sua, eta inguruko baserritarrek suhiltzailei deitu behar izan zieten, sua itzaltzeko. Bi sute horiei buruzko irudiak www.barren.eus webgunean dituzue.



Errezitaldi mistikoa egingo dute bihar parrobian

Santa Teresaren jaiotzaren bosgarren mendeurrena dela-eta, errezitaldi mistikoa eta poesia emanaldia egingo dituzte bihar San Bartolome parrobian. Avilako Teresaren eta Gurutzeko Joanen poesiak errezitatuko dituzte Eibarko Antxitxiketa Antzerki Taldeko bi kidek. Musika Elgoibarko parrokiako kidea den Juan Luis Agirre organo joleak jarriko du. Errezitaldia gaztelaniaz izango da, baina Aita Luis Baraiazarra karmeldarrak euskaratu egin ditu poema horiek, eta euskararako itzulpena pantaila handian irakurtzeko aukera egongo da.

‘Dispertsioaren liburuxka’ liburuaren irakurketa publikoa bihar, Kalegoen plazan

Dispertsioaren liburuxka ize-neko liburua kaleratu du Sarek, iheslari eta errefuxiatuen giza eskubideen defentsan lan egiteko sortu zuten sareak, eta bihar, hilak 18, liburuaren irakurketa egingo dute Kalegoen plazan. Liburuxka lau hizkuntzatan idatzita dago. Presoen sakabanaketak eragiten dituen kalteez ohartarazteko baliatu nahi dute biharko ekitaldia. 13:00etan hasiko da irakurketa.

AMC Burdindegian lapurretan egin dute

San Frantzisko kaleko AMC burdindegian lapurrak sartu ziren asteleheneratik martitzenerako gauean. Burdindegiko horma batean zuloa eginez sartu ziren barrura, eta zuzenean kutxan zuten diruaren bila joan zirela jakinarazi dute arduradunek. Erremintak eta ordenagailuak ukitu ere ez zituzten egin, baina diruaren kutxa indarrez zabaldu zuten. Dendako jabeek jakinarazi dute diru “gutxi” zegoela kutxan; ehun bat euro edo eraman zituztela lapurrek.



WATERPOLOKO NESKAK TALDEKIDE BILA

Ezkerretik eskumara: Ainhoa Agirre, Iraide Sarria eta Amaia Lersundi.

Nesken waterpolo taldea sortzeko deia egin zuen Ur Bat klubak, eta deialdi horri erantzun zioten Iraide Sarriak, Amaia Lersundik eta Ainhoa Agirrek. Iazko irailean hasi ziren entrenatzen, eta hilabete hauetan asko ikasi dute. Gustura dihardute entrenamenduetan, baina hori baino gehiago nahi dute: liga txapelketan parte hartu nahi dute. Horretarako, baina, jendea behar dute. Momentuz bost neska baino ez daude taldean, eta elgoibartarrak animatu nahi dituzte waterpolo taldeko kide izatera.

Ainhoa Andonegi

Waterpolo taldea osatzeko neskek behar dira". Eibarko Ur Bat klubak nesken waterpolo taldea sortu nahi zutela irakurri zuten Ainhoa Agirrek, Amaia Lersundik eta Iraide Sarriak, eta hirurek ere igeriketa gustuko dutenez, ez zuten zalantzarik izan. Izena eman zuten. Eibarko Orbea igerilekuan izan zuten lehenengo hitzordua, eta han elkartu ziren. Amaia eta Ainhoa elgoibartarrak dira, eta Iraide Leioakoa bada ere, Elgoibarren bizi da azken urteotan. Berehala egin ziren lagun, eta lagun giro ho-

rri esker, askoz gusturago joaten dira entrenamendu saioetara: "Berandu entrenatzen dugu, eta eguraldi txarra egiten duen egunetan pereza ematen du", esan du Amaiak. Hitz horiek baieztatu dituzte Iraidek eta Ainhoak ere, eta elkarrekin oso pozik joaten direla gaineratu dute: "Behin uretan sartuta, dena ahazten zaizu", gehitu dute.

Kirol minorizatua da waterpolo, eta are gehiago emakumezkoen artean. Hala ere, herrialde batzuetan indar handia dauka, Italian esaterako. Kirol olimpikoa da waterpolo,

eta Espainiako emakumezkoen selekzioak emaitza onak lortu zituen azken olimpiar jokotan. Euskal Herrian ez daude waterpolo talde asko, baina badira waterpoloaren kultura garatu duten hainbat herri. Iraide Leioakoa da, eta berak esandakoaren arabera, Leioan waterpolo talde oso onak daude, bai nesketan eta baita mutiletan ere. Sestaon, Irunen eta Hego Euskal Herriko hiriburuetan ere badaude waterpolo taldeak, baina ez da ohikoena. Eibarren, baina, waterpoloarako zaletasun handia dago. Mutiletan maila guztietan

daude taldeak, alebinetatik seniorretara, eta Eibarko hainbat jokalarik Euskadiko selekzioarekin ere jokatu izan dute. Nesketan, ordea, taldea osatzeko zailtasunak dituzte; zailtasun handiak. Senior mailan bost neska bakarrik daude. Gaztetxoan mailetan badaude gehiago, eta horiek gainera txapelketetan lehiatzeko aukera dute, izan ere, kadete mailara arte liga txapelketa mistoa da, eta mutilekin batera jokatzen dutelako talde berean. Arazoa kadeteetatik aurrera sortzen da. Neskek ez daukate waterpoloan jokatzen jarraitzeko aukerarik, eta horri irtenbidea eman nahi dio Ur Bat klubak. Umetatik datorkien zaletasun horri jarraipena eman ahal izateko Debarreneko senior nesken taldea sortu nahi dute. 16 urtetik gorako neskek behar dituzte taldea osatzeko. Talde bakoitzeko zazpi lagunak jokatzen dute, beraz, hamar hamabi bat lagunekin ligan izena emateko aukera izango luketela uste dute. Beraz, neskek animatu nahi dituzte taldean izena ematera: "Sekulako giro ona daukagu, eta oso ondo pasatzen dugu", esan du Iraidek. "Lagun onak egin gara; waterpolo taldea baino askoz gehiago gara", gaineratu du Ainhoak, eta Amaiari barren-barrenetik irten zaio; "waterpolo sekulako deskubrimendua izan da niretzat".

Uretako eskubaloia

Waterpoloak eta eskubaloiak elkarren arteko traza handia dute, baina waterpolo uretan jokatzen da, eta horrek badu bere zailtasuna. Hirurek aho batez esan dute waterpoloan jokatzeke igerian ondo egitea ezinbestekoa dela. Fisikoki indartsu egotea ere beharrezkoa da, oinonekin ez delako lurra ikutzen. "Teknika entrentuz ikasten da, baina fisikoa landu egin behar da", esan du Amaiak. "Baloia porteriara botatzeko, adibidez, bizikleta-ostikoa jo behar da, eta indarrez inpultsoa hartuta jaurtitzen da baloia", esan du Iraidek. "Hori guztia ikasi egiten da, baina ur gainean mantentzea zaila da", gaineratu du Ainhoak. Zortzi minutuko lau zati izaten ditu waterpolo partida batek, baina saskibaloian bezala, jokaldi bakoitzaren ostean ordularia geratu egiten da. "Motza dirudi, ezta?", esan du Amaiak irribarrez. Antza denez, jende askok esaten die partidak laburrak direla, baina uste baino luzeagoak eta gogorragoak direla esan dute.

Martitzen eta barixakuetan entrentzen dira senior neskek. Momentuz bost bakarrik direnez, kadete mailako mutilekin egiten dituzte en-

trenamendu saioak, eta horrek bere alde onak eta txarrak dituela aitortu dute: "Asko ikasten dugu mutilekin, gu baino maila hobea dutelako, baina aldi berean, beldurrez gerturaten dira guregana eta ez dute behar bezala defendatzen", esan du Iraidek. Davide Cerchi italiarra da taldeko entrenatzailea, 30 bat urtean jokalaria izandakoa, eta lehen mailan ere jokatu izan duena. "Asko laguntzen digu, eta waterpoloan etorkizun oparoa ikusten digula esaten du; maila ona daukagula, eta horrek aurrera jarraitzeko ilusioa sortzen du", esan du Iraidek.

Orain arte lagunarteko hainbat txapelketa jokatu izan dituzte. Hernaniko nesken taldearekin osatu zuten taldea, eta Sestaoko torneoan egin zuten estreinaldia. Esperientzia "oso ona" izan zen, eta partidaren bat irabazi ere egin zuten gainera. Lau talderen artean hirugarrenak geratu ziren, baina entrenamenduetan baino gehiago ikasi zutela adierazi dute. Irailean hasi ziren entrentzen, eta ordutik asko hobetu dutela uste dute hirurek, ia oharkabean: "Egun batetik bestera konturatzen zara baloia ez zaitzula eskutik erortzen, edo golak sartzen dituzu, eta horrek motibazio handia sortzen du", esan du Amaiak. Entrenamenduetan, gainera, oso ondo pasatzen dute, gustatzen zaie entrentzera joatea, kirola egiteak osasuntsu egoten laguntzen dielako. Hala ere, euren nahia entrenamenduetatik harago doa. Lehiatu egin nahi dute. Kirolariak berezkoa du lehiatzeko grina, eta Amaiak, Ainhoak eta Iraidek ere liga txapelketan parte hartu nahi dute. "Bagenekien lehenengo urte hau entrentzeko eta ikasteko izango zela, baina hemendik aurrera nahiko genuke federatu eta Liga Txapelketan parte hartzea", esan dute. Neskek animatu nahi dituzte waterpolo: "Etorri daitezela probatzera behintzat; seguru bat baino gehiago geratu egingo dela". Aitortu dute baita ere ur trago bat baino gehiago hartzen dituztela saio bakoitzean, eta gorputzean ubelduren bat edo beste edukitzea ere ohikoa dela, waterpolo kontaktu handiko kirola delako, baina horren guztiaren gainetik, oso gustura dihardutela adierazi dute. "Igeriketarako zaletasuna duen edonorentzat erraza da waterpolo, beraz, jende hori animatu dadila", esan du Iraidek.

Norbaitek waterpoloan jokatzeke interesa izango balu, Eibarko Orbea kiroldegira deitu dezake. Liga txapelketa irailan hasiko da, beraz ordura arte kirola ezagutu eta ikasteko aukera izango dute.



DAVIDE CERCHI

Entrenatzailea

Waterpolo kirol olinpikoa da eta emakumezko taldeak eta beren txapelketak oso ezagunak dira mundu mailan. Izan ere, Espainiako selekzioak 2012an zilarrezko domina lortu zuen Londresen, eta Bartzelonako munduko txapelketan, urrezkoa.

Horregatik, iaz, Urbatek emakumezkoen taldea sortzea erabaki zuen, waterpolo sustatzeko eta kluba osatzeko. 2013a baino lehen izan genituen neska batzuk klubean, baina ez genuen talderik osatzea lortu. Beraz, pasa den udan, propaganda ugari egin genuen Debarreneko herri guztietan eta geure helburua lortu genuen: aurten, Soralezko bost neskek, Debako hiruk, Elgoibarko beste hiruk, eta Eibarko bik osatzen dute benetan ederra den taldea!

2015ean horietako hiru neskek Euskal Selektioan hartu dute parte infantiletan, eta besteek ere nabarmen hobetu dute. Lan handia egiten dute guztiek asteroko entrenamenduetan, eta kluba oso gustura dago haiekin.

Nahiz eta waterpolo denentzako kirola ez izan, oso gogorra baita, gure neskek ez dute beldurrik eta harro-harro jantzen dute gure txanoa! Aurrera goaz!

Pilota eskola sortu dute Mendaron, MTE txirrindulari elkartearen babesean



NAIARA ARRILLAGA

Nolatan animatu zineten pilota eskola sortzera?

Gure semeek Lagunak taldekoekin entrenatzen zuten Elgoibarren, oso gustura gainera, baina Mendaron daukagun frontoia izanda, pena ere bazen haurrak kanpora iritea pilotan jokatzeko. Gurasoak ibili behar ginen atzera eta aurrera umeeekin, eta pentsatu nuen ia zergatik ezin genuen guk geurea sortu, herrian bertan. Guraso batzuekin hitz egin nuen eta Lagunak taldekoekin ere bai, eta ondo iruditu zitzaizkinei. Egia esan Lagunak taldekoak oso on-

do portatu dira gurekin, eta orain ere, behar ditugun guztietan hor daude laguntzeko.

Mendaroko Txirrindulari Elkartearen babesean sortu duzue elkartea. Nortzuk osatzen duzue taldea?

Pilota eskola sortzeko kluba sortzea eskatzen dute, eta gutxienez bost lagun behar dira zuzendaritza taldea osatzeko. Gu ez ginen behar beste, eta MTEkoak lagunak direnez, haiengana jo nuen laguntza eske. Baietza eman zidaten haiek, eta euren gain hartu dute eskola sortzeko ardura. Neuk zuzenduko dut gero pilota eskola, baina nire ardura beste bat izango da: egutegia eta entrenamendu saioak lotu, gurasoekin harremanak... Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet Mendaroko Txirrindulari Elkartekoei eman diguten babesagatik eta hartu duten lanagatik. Era berean, Udalak ere lagunduko digula agindu digu, eta eskertzekoa da hori ere.

Zenbat pilotari dituzue gaur? Zenbat urterekin eman dezakete izena haurrek pilota eskolan?

9 urtetik 11 urtera bitarteko bederatzita mutil dauzkagu orain taldean, baina zabalik gau-

de herriko neska-mutil guztiei. Futbolaz aparte beste kirol batzuk ere badaude, eta pilota da bat. Nahiko genuke, gainera, gure taldera neskak ere animatzea, momentuz denak mutilak direlako. Berez, 6 urterekin eman dezakete izena haurrek pilota eskolan, baina lehiatzeko 8 urte behar dira. Gure bueltako herrietan lehiatzen dira gure umeak, urrutira gabe.

Izena eman nahi dutenek nora jo behar dute?

Jarri daitezela neurekin harremanetan. Ezagutuko naute Mendaron, baina bestela idatzi diezadatela hona: narrilaga@elgoibarikastola.net.

Zein fasetan zaudete orain?

Papel baten zain gaude ofizialki hasteko, baina hasita gaude lanean. Ikasturtea irailan hasiko da, baina, eta entrenameduak martitzen eta egunetan izango dira, 17:00etatik 18:30ak bitartean. Entrenatzaile bat badaukagu, baina beste baten bila ari gara, txandaka aritzeko. Lotu dugun entrenatzaile horrek hamabost egunean behin entrenatzeko konpromisoa hartu du, eta gainerako egunak momentuz gurasoek beteko ditugu, txandaka.

Pintxo potea antolatu du Mendaroko Udalak asteburu honetarako


Herriko ostalaritza sustatzeko, pintxo potea antolatu du Mendaroko Udalak laugarren urtez jarraian, bihar eta etzirako: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldez, 19:00etatik 21:00etara. Herriko zortzi tabernek parte hartuko dute, eta taberna bakoitzak pintxo bana aurkeztuko du lehiaketara, Udalaren identifikazio txartelarekin. Euro batean salduko dituzte pintxoak, eta herritarrek euren gustukuena hautatzeko aukera izango dute. Izan ere, aurreko edizioetan legez, bi sari izango dira oraingoan ere: Sari Nagusia eta Herritarren Saria.

Epaimahai batek erabakiko du pintxo onena zein den, eta horretarako, lau irizpide hauek hartuko dituzte aintzat: aurkezpena, zaporea, testura eta originaltasuna. Bestetik, esan bezala, herritarrek ere izango dute euren mokadu gustuena aukeratzeko modua, eta bozkatzen dutenen artean 50 euroko bi bono zozketatuko ditu Udalak: bata, Sari Nagusia irabazten duen tabernan kontsumitzeko, eta bestea, herritarrek pintxo gustukuena prestatu duen tabernan gastatzeko. Bozkatzeko, Udalak kaxa bana jarriko du tabernetan. Saridunen izenak maiatzaren 4an jakinaraziko dituzte pleno aretoan egingo den sari banaketa ekitaldian (19:00). Tabernari irabazleak txapela, garaikurra eta diploma jasoko ditu, txapeldunordeak, garaikurra eta diploma eta hirugarrenak, diploma.

Irene Berasaluze izango da EAJren alkategaia Mendaron



Mendaroko EAJK aurkeztu du taldea maiatzaren 24an egingo diren Udal hauteskundeetarako. Irene Berasaluze izango da berriro ere EAJren hautagaia alkatetzarako, eta honako beste hauek osatuko dute zerrenda: Maite Apellaniz, Iñaki Arregi, Angel Mari Iriondo, Felipe Castro, Mariasun Barrutia, Alberto Orbegozo, Alex Aranberri eta Maria Angeles Olazabal. EAJK orain hurrengo egin ziren hauteskundeetan galdu zuen alkatetza.



Arg.:Aitor Antón

Jokin Muñoz, Espainiako txapeldunorde, duatloi motzean

Sasoiko dago Jokin Muñoz. Dimekan bigarren egin zuen Sorian jokatutako duatloi motzeko Espainiako txapelketan, 25 eta 29 urte artekoetan. Korrika eta bizikleta batzen ditu duatloiak, eta hiru ziren egin beharrekoak: 10 kilometro korrika, 40 kilometro bizikletan eta beste bost korrika. 2:11:09ko denboran osatu zuen proba osoa. (Probak banaka hartuta honako hauek izan ziren bere denborak: 36:30 / 1:14:42 / 19:57). Lortutako emaitza ez zuela espero aitortu du Muñozek, eta oso pozik dagoela.

Merkataritza suspertzeko kanpaina jarri du martxan Mendaroko Udalak

Herriko merkataritza suspertzeko kanpaina egingo du Mendaroko Udalak, apirilaren 13tik 30era bitartean. Epe horretan Mendaroko dendetan hamar eurotik gorako erosketa egiten dutenak 25 euroko lau erosketa bonoren zozketan sartuko dira. Maiatzaren 4an egingo dute zozketa, 19:00etan udaletxean.



Joste eguna

Erabakitzeko eskubidearen defentsan San Mames, Anoeta, Buesa Arena eta Iruñeko zezen plaza betetzera deitu du Gure Esku Dago mugimenduak ekainaren 21erako. Herriz herri banatu eta jositako oihal zatiekin hautetsontzi erraldoiak osatuko dituzte egun horretan, baina aurrez, apirilaren 25ean, bihar zortzi, Joste Egunak ospatuko dituzte herriz herri, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. Egun “koloretsua” izatea nahi dute Gure Esku Dago batzordeetako lagunek, eta parte hartzera deitu diete herritarrei, etiketak alde batera laga eta bidea elkarrekin egiteko garaia dela sinetsita.

Ainara Argoitia

Ehundu, adostu, erabaki. Horixe da Gure Esku Dagoen bide orria. Eta erabakia posible izan dadin, adostasunerako duten borondatea agertu nahi dute ekainaren 21ean, norbanakoek oihal zatietan idatzitako amets, desio eta aldarrikapenak jasoko dituzten hautetsontzi horiek eraikita. Bihar zortzi, orain arte batutako oihalak josteko eguna izango da herrietan: Joste Eguna. Jai-giroan ospatuko dute hori Elgoibarren eta Mendaron.

Mendaron, herri-bazkaria

Mendaron, herri-bazkari baten bueltan batuko dira, oihalak josteko. Koadrilaka banatu dituzte oihalak, eta haietako batzuk bihar, hilak 17, elkartuko dira San Jose plazan, oihalak pertsonalizatzeko. Hala ere, norbanakoek ere izango dute euren oihal zatia eskuratzeko aukera, norbanakoentzat ere gorde dituztelako oihal batzuk. Hilaren 25eko bazkarirako txartelak, berriz, salgai daude dagoeneko, ohiko lekuetan: Txirristaka tabernan eta Coviran eta Morroskillo dendetan, eta interesatuei txartelak lehenbailehen hartzeko eskatu diete antolatzaileek, antola-

kuntza lanak errazteko (asteazkena, hilak 22, izango da txartelak erosteko azken eguna). Bazkarirako txartelak 13 euroan jarri dituzte salgai, eta Luzaide tabernak zerbitzatuko du bazkaria, tabernako ontziterian. Menua honako hau izango da: paella, gisatua eta ijito-beso bizkotxoa. Eguna bera herriko hainbat talde eta norbanakoren laguntzarekin girotuko dute. Egurditik bazkalordura arte (12:00-14:30) kantu kalejira egingo da herrian, Trikititarren taldekoekin, Mendaroko abesbatzako neskekin eta hala nahi duten guztiekin, eta bazkalostean, Dantza Modernoko Mendaroko neskek Gure Esku Dago kanta eta beste batzuk dantzatuko dituzte, ondoren egongo den erromeriaren atariko gisa.

Elgoibarren, egun osokoa

Elgoibarren dultzaineroen dianarekin hasiko dute eguna, 9:00-9:30ak aldean, eta 11:00etatik aurrera, trikitilariak, dantzariak, abeslariak eta bertsolariak girotuko dute goiza. Plaza izango da bilgunea –euria egiten badu, Maalako parkea–, eta han Gure Esku Dago kantuaren koreografia ere dantzatuko dute. Ekintzak askotarikoak izango dira, bai-

na beharbada, egun horretarako apropos sortu duten Oka jolas erraldoia eta Hiru lerroka jolasa izango dira ekintzarik ikusgarrienak. Ione Ariznabarreta Gure Esku Dago batzordekidearen ideia izan da jolasak sortzearena eta lantalde oso batek jardun du piezak banan-banan eskuz egiten. Horrez gain, baina, haurrentzako jolasak eta aurpegia margotzeko tailerrak ere izango dira, eta muralgintzan aritzeko aukera ere izango dute etxeko txikienek. Eta jakina, Gure Esku Dago mugimendura batzeko eta kamisetak erosteko aukera ere eskainiko dute, salmenta eta informazio postuan. 14:30ak aldera arte iraungo du jaiak plazan, eta Maalan emango diote gero jarraipena, arratsaldean. Antolatzaileek ez dute ezer aurreratzerik nahi izan, baina korrika egin eta dantzan aritzeko gogoz hurbiltzeko eskatu diete herritarrei.

Guzti horrez gain, Gure Esku Dago pintxo poteoa ere iragarri dute egun horretarako. Mugimenduarekin bat egiten duten tabernekin bina pintxo prestatuko dituzte, eta taberna bakoitzean euren pintxo gustukoa hautatzeko aukera izango dute, horretarako jarriko dituzten hautetsontzietan botoa emanda.



IONE ARIZNABARRETA (Soraluze, 1960) Elgoibarko Gure Esku Dagokoa

Oka joko erraldoia sortu du Elgoibarko Gure Esku Dago batzordeak apirilaren 25erako. Ione Ariznabarretari bururatu zitzaion kontua da, eta berak eman dizkigu argibide gehiago.

Zeurea da oka joko egiteko ideia. Nola bururatu zitzaizun?

17 urte nituenetik jolasaren inguruan egin dut bizitza. Beti iruditu zait bizitza jolasa dela eta jolasak bizia ematen duela, eta halako ekitaldiak beti lotzen ditut jolasarekin, gozamenarekin, ilusioa sortzeko gozamena ezinbestekoa delako. Aldi berean, nahi nuen gure txikitasunean apirilaren 25ean ikusiak izatea, eta halaxe bururatu zitzaidan oka joko handi bat sortzea egun horretarako eta Kalegoen plazara ateratzea, Gure Esku Dago mugimendua gehiago plazaratzeko. Gure Esku Dagon herritarrek dira protagonista eta gure oka jokoan ere hala izango da. Nahiko genuke, gainera, belaunaldi ezberdinen arteko topagune ere izatea plaza egun horretan.

Nolako izango da oka joko erraldoi hori? Zer dimentsiotakoa izango da?

63 piezatakoka joko izango da eta laukiek 1,20 x 0,80ko neurria izango dute. Ikusgarria izango da oso, plaza erdia hartuko duelako. Pertsonak izango dira piezak, eta gainean ibiliko dira, oinutsik, jolasean. Pausoak margotuko ditugu laukietan eta kolorea jarriko dugu; mila kolore eta mila neurritako urratsak izango dira.

Nazioen mundua hasi zenetik ekainaren 21ean hautetsontzi erraldoiak eraikiko ditugun arteko ibilbide osoa jasoko dugu laukietan. Oka jolasean, okatik okara egiten dugu jauzi, eta hemen, Gure Esku Dagon logotik logora ibiliko gara saltoka. Goazen hitzeko laukitik abiatuko gara, eta une ezberdinak jasoko ditugu irudietan. Bi zubi izango dira gure oka jokoan, egin diren aurrerapenen erakusle; bi denda, txanda bateko atsedena hartu eta Gure Esku Dagoko materiala erosteko; udako oporren laukia ere izango dugu, atsedena hartzeko, eta hiru eskailera: Eskoziatik Kataluniara eta handik Euskal Herrira jauzi egiteko. Helmugan, oihalez osatutako hautetsontzi erraldoia egongo da, eta hara iristen de-

nak mezu bat idatzi eta hautetsontzian sartzeko aukera izango du. Goazen hitzeko laukitik abiatuko gara, eta une ezberdinak jasoko ditugu irudietan. Errepaso horretan, Elgoibarren egin diren ekintzak eta elgoibartarrek mugimendu honi egin dioten ekarpena ere jasoko dugu, laukiz lauki. Lauki bakoitzean hiru edo lau argazki izango dira, orokorrak batzuk, baina gehienetan elgoibartarrak agertuko dira. Joko osoa papez egindakoa da, eta oso koloretsua izango da, Gure Esku Dago mugimendua bera bezalakoxea. Oka joko horretako laukiak mila eskutatik pasatu dira, mila ukitu behar izan dutelako, eta hori ere badu. Eskuz esku ibili da, eta horrek niretzat behintzat esanahi berezia dauka. Horrez gain, Hiru lerroka jolas erraldoia ere sortuko dugu, kartoizko eskuekin eta emotikonoekin.

Ez duzue edonolako lana hartu. Zein izan da zailena?

Lan handia izan da. Laukiak egiteak berak lana dauka, baina aurrez memoria ariketa handia ere egin behar izan dugu, mugimendua sortu zutenetik gaur arte egin direnak kronologikoki jasotzeko. Gustura egiten dena, baina, ez da lana izaten; ilusioz ari igara.

Gure Esku Dago batzordean diharduzu zuk. Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz? Zer esan-gozeniek oraindik gerturatu ez direnei?

Aurten batu naiz batzordera. Ilusioa da edozer egiteko motorra, eta ikusten dut jendeak ilusio handia duela. Batzuetan erdi-lo egoten da ilusio hori, baina Gure Esku Dago lortu du ilusio hori

esnaraztea, eta poza ematen du horrek. Iruditzen zait oraindik gerturatu ez direnak pentsatzeko tartetxo bat hartu ez dutelako ez direla gerturatu, baina batuko dira. Oihal batzuk jaso ditugu dagoeneko, eta garbi dago jendea ilusioz dagoela. Sekulako sentimendu pila jaso ditugu oihaletan idatzita, aurrera egiteko gogo handia bestera esanda, eta sentimendu horiek denak jaso behar ditugu orain, elkarrekin bidea egiten jarraitzeko. Benetan esaldi politak irakurri ditugu oihaletan eta oihal horiek plazan esegiko ditugu apirilaren 25en, jendeak irakurri ditzan, ilusioa ere kutsatzen delako. Animatuko nuke jendea mugimendura batzera. Oraindik erreparo gehiegi ditu jendeak; etiketak ikusten dituzte pertsonak ikusi beharrean, eta hori amaitzeko ordua da. Hemen inor ez da ezinbestekoa, baina denok gara beharrezkoak.

“Ekimen koloretsua izango da Oka jolasa, Gure Esku Dago bezalakoxea”



Oka jolaseko eta Hiru lerroka jolaseko piezetako batzuk.

59 dantzarik parte hartuko dute Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan

Zapatuan eta domekan jokatuko dira kanporaketak Herriko Antzokian

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatuko dute Elgoibarren datorren asteburuan. Bi kanporaketa jokatuko dituzte: zapatuan A saileko (7-11 urte) neska-mutilak lehiatuko dira, 16:00etatik aurrera, eta domekan, berriz, B sailekoen (11-15 urte) txanda izango da. Goizez izango da domekako saioa, 11:00etan hasita. Guztira, 59 dantzarik parte hartuko dute, eta horien artean Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bederatzik ordezkarik izango dira. Zapatuko saioan, Maddi Zabala, Amaia Sasiain eta Oier Galindo igoko dira oholtza gainera. Azken horrek, Oier Galindok, bigarren postua eskuratu zuen azken jokatu den kanporaketan, Oiartzunen.

Domekan, berriz, Amaia Astigarraga, Oihane Agirrebeña, Irati Marcos, Lorena Etxaniz, Gaizka Uranga eta Eneko Gonzalez izango dira Elgoibarko ordezkariek. Naroa Lopez eta Nerea Sasiain ere ari dira txapelketan parte hartzen, baina Elgoibarren ez zaie tokatzen dantza egitea (zozketa bidez erabakitzen da). Besteak beste, *Punta motz*, *Uztai txiki* zortzikoa, *Apargatak*, *Agurra*, *Eribera*, *Upe-*



lategi, *Desafioa* eta *Jorrai* dantzan zortzikoa dantzatu beharko dituzte partaideek.

Antolatzaileek dei egin diete herritarrei elgoibartarrak animatzera joateko.

Zabaldute Atxutxiamaikaren udako ekintzetan izena emateko epea



Udaberriko oporrak bukatu ostean, udaldiari begira jarri da Atxutxiamaika Elgoibarko Izarrako aisialdi taldea, eta aurten ere eskaintza zabala prestatu dute. Haur Hezkuntzako 2. mailatik LH2ra arteko umeentzako udako txokoak antolatu dituzte. Bi txanda egongo dira aukeran: bata, ekainaren 22tik uztailaren 10era, eta bestea, uztailaren 13tik 24ra. Izena emateko epea apirilaren 23an bukatuko da. Lehen Hezkuntzako 3. mailakoentzat, berriz, Irañeta aterpetxean egonaldia. Behin behineko izenematea gaur itxiko dute, eta apirilaren 27an egingo dute plazen zozketa. Behin betiko izenematea maiatzaren 8rako egin beharko da.

Udaldiko ekintzei buruzko informazio guztia Elgoibarko Izarraren webgunean duzue: www.elgoibarkoizarra.eus.

AEK euskaltegia lekuz aldatu dute

Aita Agirre plazako eraikina husten ari da Udala kultur gune berria egiteko, eta orain arte han egon diren elkarteek leku berria eskaintzen ari da. AEK euskaltegia Gabriel Kurutzelaegi kaleko 10ean egongo da aurrerantzean. Arduradunek jakinarazi dute harremanaterako bideak lehengo berberak direla.

Bideo forum saioa gaur gauean

Haizea emakume taldeak bideo forum saioa antolatu du gaur gaueko. 2005eko *Caos* film estatubatuarra landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. 21:30ean kafea hartuko dute pastekin, eta 22:00etan hasiko da filma. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da.

Apirilaren 22an egingo da Elgoibarko Izarraren Batzar Orokorra

Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan hasita



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak datorren eguaztenean, apirilak 22, egingo du urteko Batzar Orokorra. Besteak beste, 2014an egindakoaren aurkezpen-balorazioa eta diru-kontuen memoria, eta 2015eko lan-ildo nagusien eta aurrekontuaren aurkezpena egingo dute. Batzarra 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elkarteko arduradunek bazkide guztiei egin diete batzarrera agertzeko gonbitea, bazkideen presentzia “oso garrantzitsua” delako Elgoibarko Izarrarentzat.

‘Euskararen espektakulue’ bakarrizketa aurkeztuko du Oihan Vegak gaur zortzi



Kalamua guraso elkarteak antolatuta, *Euskararen espektakulue* bakarrizketa saioa eskainiko du Oihan Vega telebistako aurkezle ezagunak gaur zortzi.

Umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko gaitu Oihan Vegak bakarrizketa komiko honekin, musikaz, kantuez eta zineaz baliatuta. Publikoarekiko interakzioa eta elkarrekintza etengabea da ikuskizun honetan.

Lan honetan Kepa Errasti Euskal Telebistako gidoilari eta aktore ezagunaren eta Aretxabaletako Euskara Elkartearen laguntza izan du Oihan Vegak. Elkarlan horren emaitza izan da *Euskararen Espektakulue*. Barrea eragiteaz gain, pentsarazi ere egingo dio bakarrizketak publikoari, izan ere, galdere deseroso eta garratzak erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitea baita ikuskizunaren helburua. Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan izango da ikuskizuna, 20:00etan.

Euskara arloko diru-laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Euskara arloko diru-laguntzen oinarriak onartu ditu Elgoibarko Udalak, eta beraz, eskaerak egiteko aukera dute dagoeneko herritarrek. Besteak beste, honako-etarako eskatu daitezke laguntzak: Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko, barnetegietan egonaldiak egiteko, UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko eta Elgoibarko establezimenduetako publizitate errotuluak euskarara hutsean jartzeko. Eskaera hauek egiteko epea urriaren 31n amaituko da.

Era berean, ondorengoetarako ere laguntzak egongo dira: Lanbide Heziketako prestakuntza euskaraz egiteko eta herriko enpresetan euskararen erabilera planak bultzatzeko. Eskaera hauek egiteko azken eguna irailaren 25a izango da.

Informazio gehiago lortu nahi dutenek Udalaren webgunean (www.elgoibar.eus) eta Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (Tel. 943 744 366 edo euskara@elgoibar.eus).

Gazteen proiektuentzako diru-laguntzak

Elgoibarko Udalak diruz lagunduko ditu 13 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektuak. Osasun, kultura, aisialdia, hezkuntza, etxebizitza, euskara, ingurumena, herritarren parte-hartzea, elkarkidetza, berdintasuna eta kultur aniztasunari buruzko proiektuak aurkeztu ahal izango dira diru-laguntza deialdi honetan, eta gehienez mila euroko diru-laguntza eskuratu ahal izango dute. Interesatuak maiatzaren 15era arte dute proiektuak aurkezteko epea. Informazio gahiagorako Udaleko Arreta Bulegora deitu daiteke: 943 741 050.

Historiaurreko erremintei buruzko erakusketa zabalduko du Jose Julian Marquez elgoibartarrak bihar

Martxoaren 30era arte egongo da ikusgai Kultur Etxean

Jose Julian Marquez elgoibartarrak historiaurreko erremintei buruzko erakusketa inauguratuko du bihar. Aspaldi hasi zen historiaurreko erremintak eskuz egiten, eta iaz jarri zituen ikusgai estreinakoz. Erakusketak harrera “oso ona” izan zuela adierazi du, eta horrek bultzatu du bigarren edizio hau antolatuzera. “Bi mila lagun inguru etorri ziren erakusketa bisitatuzera, eta hori izugarria da Elgoibar moduko herri baterako”, esan du. Iaz bezala, Europako historiaurreko erremintak egongo dira ikusgai, baina aurtengo berrikuntzen artean, Euskal Herriko eta Kantabriako erremintak nabarmendu ditu Marquezek. Prailehaitz kobazuloan erabili zituzten erremintak egin ditu, eta Kantabriako edota Valentziako kobazuloetan erabiltzen ziren erremintekin konparatuko ditu. Aurten ahalegin berezia egin du Euskal Herriko historian barneratzeko, eta orduak eman ditu liburu artean ere, erremintei buruzko informazioa eskuratzeko. Besteak beste, aizkorak, errotak, geziak, arpoiak, eta txaman baten burukoa ere prestatu ditu. Erreminta guztiak eskuz egindakoak dira.



Oreinaren adarrak, larrua, egurra, animalien tripak eta ilea erabiltzen ditu, besteak beste, erremintak egiteko.

Erakusketa didaktikoa

Erakusketa didaktikoa izango da. Herri Eskolako eta Ikastolako umeei hitzaldiak emango dizkie garai hartako ehiza tekni-

kak azaltzeko, eta praktikak ere egingo dituzte. Marquezek arrantzan jarriko ditu umeak, berak egindako erremintak erabiliz. Hitzaldi horietan Azkoitiko Munibe arkeologia elkarteko Juan Mari Arruabarrenaren laguntza izango du. Bihar inauguratuko du erakusketa, 18:30ean, eta hilaren 30era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Musika flamenkoaren jaia antolatu dute, ‘Apirileko Feria’ jaialdian

Atzo hasi zuten *Apirileko Feria* Elgoibarren, eta horren barruan, flamenko doinuak entzuteko aukera izango da gaur eta bihar. *Esen- cia y compas* izena dauka gaur gaueko ikuskizunak, eta bihar Lidia Lorezok flamenko kontzertua eskainiko du. 22:30ean hasiko dira bi saioak, eta Txarriduna tabernako terrazan izango dira. Kontzertua eskaintzeaz gain, Lidia de Lorezok dantza flamenkoari buruzko ikastaroa ere eskainiko du Gabazen.

 **barren.eus**

E-posta berriak ditugu:

BARREN astekaria:
barren@elgoibarkoizarra.eus
 BARREN publizitatea:
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
 BARREN webgunea:
barren.eus@elgoibarkoizarra.eus
 Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea:
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Eskubaloi campusa antolatu du Sanlok uztaierako

Apirilaren 27rako eman behar da izena



Eskubaloi campusa antolatu du Sanlok uztaierako. Laugarren urtez antolatu dute aurten eskubaloi campusa. Huescako Canfranc herrian izango da, eta bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa uztaieraren 13tik 20ra, eta bigarrena, 20tik 27ra. Besteak beste, mendi ibilbideak, jolasak, gaubelak, eta kirol ezberdinak probatzeko aukera izango dute umeeak, euskal giroan. Horrez gain, han inguruan dagoen abentura zirkuitoa ere bisitatuko dute. Antolatzaileen arabera, urtetik urtera Elgoibarko eta inguruetako herrietako ume gehiagok hartzen du parte, eta aurten gure eremutik kanpora ere egin dute deialdia. Jakinarazi dutenez, Zumaiko edota Gasteizko jendea ere hasi da izena ematen. Apirilaren 27an amaituko da izena emateko epea. Informazio gehiagorako sanlotxo@gmail.com helbidera idatzi edo 679 088 201 (lon) telefonora deitu daiteke.

Gaur bukatuko da emakumezkoen pala txapelketan izena emateko epea



Gaur bukatuko da emakumezkoen bikoteakako pala txapelketan izena emateko epea. Interesatuak Iturri tabernan eman behar dute izena. Bikote bakoitzak, 20 euro ordaindu beharko ditu izena ematerakoan. Pala txapelketa apirilaren 27an hasiko da, eta partidak Kalegoen plaza jokatuko dira.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 6 – Aretxabaleta 0 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Segorbe 4 – Concepto Egile Elg. 4 (2B)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 29 – Ereintza 29 (Sen. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18

16:00 Elgoibar – Roteta (Erreg.)

18:00 Elgoibar – Aurrera (Jub.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 19

12:30 Concepto Egile Elg. – San Juan (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 18

10:00 San Roke Elg. – Aiala C (Inf. neska)

11:15 Ikus Elg. – Tolosa (Inf. neska)

12:30 Txarriduna Elg. – Amenabar A (Inf. mut.)

17:30 Astigarraga Elg. – Aloña A (Jub. neska)

19:00 Tecnifuelle Elg. – Untzilla (Kad. neska)

Domeka, 19

9:45 Murgil Elg. – Bergara (Inf. mut.)

11:00 Sukia Elg. – Pulpo (Aleb. mut.)

Ilaunera irteera antolatu du Morkaiko domekarako

Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean, Ilaunera irteera antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak domekarako. Ilaun Beizama gainean dagoen mendia da. Zortzi bat kilometroko ibilbidea egingo dute, 350 metroko desnibel positiboarekin. 9:30ean batuko dira Mintxetako aparkalekuan, eta eguraldiaren arabera, Beizaman edo Santa Agedan utziko dituzte autoak, eta handik oinez egingo dute Ilaunerako bidea. Antolatzaileek gogorazi dute umeak ezingo direla bakarrik joan irteera honetara eta bakoitzak arduradun bat izan beharko duela.



Aitor Osa eta Maite Maiora nagusitu ziren domekan Mendaroko bosgarren Kilimon Trail mendi lasterketan

Eguraldi beroak eragin zuen emaitzetan ere, eta ez zen iazko errekorrik lortzerik ondu

Jendetza handia batu zuen domekan Kilimon Trail mendi lasterketak Mendaron. Izen handiko korrikalariak zeuden izena emanda, eta bazegoen ikusmina, nork zer egingo zuen. Azkenean, Aitor Osa itziartarra eta Maite Maiora nagusitu ziren korrika. Gizonezkoetan, Aitor Osa, David Lopez Castan eta Ismail Razga gaztea –21 urteko promesa– batera xamar joan ziren 13. kilometro aldera arte, baina Munitxibarreneko aldapan gora, Lizarrolako zulutik Larraskandarako bidean, atzean laga zituen Osak, eta bakar-bakarrik helmugaratu zen itziartarra, 1:56:25eko denbora eginda. David Lopez Castan segoviarrak, lasterketa irabazteko faborito nagusienetako bat zena, helmugaratu zen bigarren postuan, minutu eskasera (1:57:30), eta Ismail Razga sartu zen hirugarren helmugan (1:58:10), iazko Kilimon Traileko txapeldunordea. Denbora ona egin arren, Osak ez zuen iaz Luis Alberto Hernandok ezarri zuen errekorra ontzerik lortu.

Gizonezkoen dagokionean, baina, aipatu beharra dago baita ere Jose Mari Bernedo eibartarrak egindako marka: 2:00:02. Fabori-

toen zerrendetan gutxitan aipatzen den gizona izan arren, punta-puntako korrikalaria dela erakutsi du behin baino gehiagotan, eta berretsi zuen atzo ere. Bosgarren sailkatu zen eibartarra, podiumera igo ziren hiru lehenengoen eta azkeneko bi urteetan Espainiako txapeldun izan den Alfredo Gilen atzetik. Aipagarria da, era berean, Ander Barrenetxea elgoibartarrak egindako denbora ere: 2:03:53.

Bostetik bost Maiorarentzat

Emakumezkoetan, berriz, Maite Maiora joan zen uneoro lasterketa buruan, eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara mendararra. 2:15:28ko denbora behar izan zuen Maiorak ibilbidea osatzeko eta hamar minutuko aldea atera zion bigarren emakumeari, Montse Vazquezi, Euskadiko txapeldunordeari. Hirugarren postuan Maria Zorroza gernikarra helmugaratu zen (2:28:32).

Bi mendaroar onenak ere saritu zituzten antolatzaileek. Emakumezkoetan, Maite Maiorak jaso zuen saria. Bost Kilimon Trail jokatu dira, eta bostak irabazi ditu. Gizonezkoetan, berriz, Gotzon Zulaika izan zen menda-



Maite Maiora, helmugan. Arg.: Felix Beitia roarrak azkarrena. Hiru hilabete inguruan gel-dirik egon da Zulaika, lesio bat tarteko, eta lesioaren ondotik jokatzeko estraineko lasterketa izan zen atzokoa. Sailkapen nagusian hogeigarren egin zuen Zulaikak, 2:14:13ko denborarekin. Aipagarria da, era berean,



Aitor Osa irabazlea eta David Lopez Castan.



Gotzon Zulaika, lehen mendararra.



Iban Murua, elgoibartarra, helmugan.



gazteetan, Ismail Razgak berak (1:58:10) eta Vitorin Fernandez astu-
riarrak (2:06:16) emandako erakustaldia.

Aurten, baina, berrikuntza bat ere izan da Kilimon Trailen. Antola-
tzaileek kronoigoera bat iragarri zuten. Gaintxipixatik Lizarpera nork
azkarrago igo neurtu zuten -400 metroko igoera, 100 metroko des-
nibelarekin-, eta bi onenak saritu: Julen Martinez de Estibariz gas-
teiztarra eta Maite Maiora. Mendaroko produktuez osatutako otar
bana jaso zuten.



Ismail Razga tropelburuan, lasterketa hasi berritan.



Jose Mari Bernedo, sailkapen nagusiko bosgarren. Arg.: Felix Beitia



Korrikalariak Gaintxipixara bidean. Arg.: Unai Agote



Maria Zorroza, Maite Maiora eta Montse Vazquez.



Montse Vazquez, ahalegin betean. Arg.: Unai Agote



Sonia Garcia Mendaroko alkatea, Maria Zorroza, Ismail Razga, Aitor Osa, Maite Maiora, David Lopez Castan, Montse Vazquez, Julen Martinez de Estibariz eta Ander Zulaika MTEko presidentea. Gozton Zulaika lehen mendaroarra falta da podiumean.



LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo externa eta baita gauak pasatzeko ere. Esperientzia. ☎ **631 506 763**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 705 406**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna ere bai. ☎ **632 454 417**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 714 520**
- Jaunartzeetako argazkiak ateratzeko prest. Merke. jefrycid91@gmail.com ☎ **666 140 762**
- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo tabernetan lan egiteko. ☎ **602 860 033**
- Gizona eskaintzen da peoi, artzai, lorezain edo arraindegian lan egiteko Esperientziaduna. Zumaiaiko arraindegian arraina manipulatzeko lan egindakoa. ☎ **631 066 712**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **602 146 153 (Fatima)**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu edo garbiketarako egiteko. Orduka. ☎ **628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. ☎ **606 354 982**

- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile, zerbitzari edo harakin moduan lan egiteko. Esperientzia autoetako atek konpontzen. ☎ **661 064 027**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo egun osoz. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. ☎ **686 265 293**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. ☎ **636 882 838**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **631 738 048**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka zein interna. ☎ **635 189 294**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. ☎ **636 976 515**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka nahiz interna. Premia handia. ☎ **631 790 555**
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **654 304 337**
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, eta umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **695 708 379**
- Gizona eskaintzen da zerbitzari lanetarako edo adinekoak zaintzeko. Mekanika eta mantenu alorrean ere esperientziaduna. ☎ **661 064 027**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **677 259 560**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **626 580 592**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **631 651 098**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna. ☎ **631 697 238**
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Gauzez ere bai. Erreferentzia onak. ☎ **631 343 232**
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna edo orduka. ☎ **631 124 942**
- Emakumea garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna. ☎ **639 523 390**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka, asteburuetan ere. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **680 808 125**

- eta trastelekua. Egoera onean. ☎ **686 204 618**
- Bikotea eta umea gara. Etxea behar dugu alokairuan. Arduratsua. ☎ **628 738 472**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gehienez, 500 €. ☎ **606 354 982**
- Hiru logelako pisua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Grupo San Ignacio- Casa Verde) udarako edo 2015-2016 ikasturterako. ☎ **645 716 847 (Rosi)**
- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. 500 euro ordainduko nituzke gehienez. ☎ **661 064 027**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziagarria. ☎ **660 055 692**

OSPAKIZUNAK

- 1973ko kintoen bazkaria ekainaren 13an, Txarridunan. Luntxa, 13:00etan eta 19:00etan festa Gabaz tabernan. 40 euro sartu, Kutxa: 2095 5036 50 9114823858. Ekainaren 5erako.
- Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria antolatuta dugu. Ekainaren 6an izango da Txarriduna jatean. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna, maiatzak 5.
- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txarridunan. 40 euro. Castrillejo estankotan eman izena hilaren 22rako.

ETXEBIZITZAK

- San Frantzisko kalean pisua alokagai. Egonela-jangela sukalde amerikarrarekin, bi logela handi, komuna eta terraza handia. Dena kanpoaldera. 550€ komunitateko gastuak barne. ☎ **669 293 449**
- Babes ofizialeko etxea salgai Santa Ana kalean. Bi logela, garaje marraduna



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Komunitatearen onspena behar al da antena parabolikoa jartzeko?

Bi egoera gerta daitezke:

1. Eraikinean telekomunikazioetarako azpiegitura amankomuna baldin badago ezin da antena paraboliko individualik jarri. Azpiegitura hori jartzeko zaharrak kendu behar dira, eta tarte horretan bizilagunek seinalea jasotzen jarraitzen dutela bermatzeko betebeharra du komunitateak.

2. Eraikinak ez badu telekomunikazioetarako azpiegitura amankomunik edo duten hori ez badago egungo arudira egokituta, etxe-jabeek –eta maizterrek berdin– eskubidea izango dute euren kontura antena bat jartzeko, beti ere horrek lehendik dagoen azpiegiturari kalterik eragiten ez badio eta aurrez beste zerbitzuren bat kontratatuta duten bizilagunek jasotzen duten seinaleari interferentziarik egiten ez badio. Instalazio hori egiteko, baina, bizilagunen onspena behar da. Bizilagunen batzarrak ezetza ematen badu, alternatibaren bat eskaini behar dio antena jartzeko interesa duen horri.

AHOLKUA: Instalazio hori egin nahi duen bizilagunak garbi azaldu beharko ditu proiektuaren nondik norakoak eta antena horrek elementu amankomunetan zer eragin izango duen. Era berean, antena horren mantenu gastuak oso-osoan hartuko ditu bere gain eta eraikinaren kanpo-konfigurazioa errespetatu beharko du.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Nahia**, 6 urte egingo dituzulako. Muxu asko, Elgoibarko zure familiakoen partez.



• Zorionak, **Malen**, apirilaren 6an urte bat bete zenuelako. Zure neba Beñat eta lehengusina Maddi eta Garaziren partez.



• Zorionak, **Markel**, bihar, hilak 18, 10 urte egingo dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Zugatz**, zure laugarren urtebetetzean. Muxuak, gurasoen eta anai-arreba Haitzart eta Laieneren partez.



• Zorionak, **Ibon**, zure lehenengo urtebetetzean. Familiakoen partez, eta bereziki, June eta Marinaren partez.



• 100 urte ez ditte edozeinek hartzen! Zorionak, amama Juli. Etxeok, baiña bereziki Manex, Xabat, Eukene eta Aimarrek.



• Zorionak, **Xabat** zure 5. urtebetetzian. Egun ona pasau txurruak eta txokolata janaz. Muxu, etxeok eta bereziki anaia Manexen partez.



• Zorionak, **Intza**, astelehenean 4 urte handi beteko dituzulako. Muxu bat denon partez, bereziki Martinen partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **txapeldun!** Ondo pasa zure eguna trikititarren eta etxeokoen partez! Besarkada handi bat.



• Zorionak, **printzesa!** Ondo pasa zure eguna trikititarren eta etxeokoen partez. Txokolatezko muxuak.



• Zorionak, **Gadea**, etzi 5 urte egingo dituzulako. Eskaintzen diguzun maitasuna eta alaitasuna eskertuz, etxeokook. Maite zaitugu.



• **Gure neskatok** 6 urte potolo! Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Familia osoaren partez, eta batez ere Anderren partez.



• Zorionak, **Lea eta Malen**, gaur 3 urte bete dituzuelako. Zorionak etxeok guztien partez.



Apirilak 19, igandea, udalekuak antolatzeko bilera egingo dugu 18:00etan. Ekarki zure proposamena.

Ludotekako VI. aste nagusia ate joka daukagu. Ba al duzu proposamenik? Zatoz ludotekara, eta lagundu egitaraua prestatzen

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquinas Remontadas

IMH ELGOIBAR

Prestakuntza Integratua: Zure neurria egindako ibilbidea

Ingeniaritza **DUALA** imh

UNIBERTSITATE ESKOLA

DBH amaituta:

Erdi-Mailako HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

Sarrera froga

- Atzerrian praktikak egiteko aukera zabala
- Ekipamendu aurreratua

Batzilergoa amaituta

Goi-Mailako HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

38 kreditu baliozkotzea

- Etekin Handiko taldeak
- Eredu Duala (Goi-Mailan)
- Eredu Eleanitzak

Goi-Mailako Heziketa Zikloa amaituta:

Ingeniaritza Dualeko UNIBERTSITATE GRADUA

- Alternantzia: 1. urteko 2. sei hilabetean Goi-ziklo baten ondoren 38 kreditu baliozkotu daitezke: urte erdiko prestakuntzaren baliozkotzea

Informazio saioa: Apirilak 25, 11:00 etan

Saio gehiago: www.imh.eus / Bertaratzea baieztatu 943744132 tfnoan.

17 barixakua

Zine forum

21:30 'Caos'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

18 zapatua

Irakurketa publikoa

13:00 'Dispertsioaren liburuxka'

Sarek argitaratutako *Dispertsioaren liburuxka* irakurriko dute. Kalegoen plazan.

Dantzaldia

16:30 Auresku eta soinu zahar txapelketa

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

Erakusketa

18:30 Historiaurrea

Historiaurre paleo-indioari buruzko erakusketa inauguratuko dute. Hilaren 30era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Poesia

20:00 Errezitaldi mistikoa
San Bartolome parrokian

Aisialdia

23:00 Bakarrizketak

Umerezko bakarrizketa gaua, Tantaka tabernan.

19 domeka

Dantzaldia

11:00 Auresku eta soinu zahar txapelketa

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

21 martitzena

Hitzaldia

19:00 Banketxeen gehiegizko klausulak

Stop Desahucios taldeak antolatuta, Jose Mari Erasquin eta Maite Ortiz izango dira hizlariak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22 eguaztena

Ipuin kontalaria

17:00 Maialen Zubeldia

Udal Liburutegian.

24 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribil

Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen plazan.

Bakarrizketa

20:00 'Euskararen espektakulue'

Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, musika eskolako auditorioan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

| 09:00 - 22:00 | 22:00 - 24:00 | 24:00 - 09:00 |
|--|---|--|
| 17 Etxeberria 18 Yudego 19 Yudego 20 Fernandez 21 Oruesagasti 22 Barrenetxea 23 Ibañez 24 Garitaonandia | Astelehenetik igandera Garitaonandia | Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100) |

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)



«El Francotirador»
17, barixakua: 21:30
11, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
12, domeka: 19:00
13, astelehena: 21:30



«Home, hogar dulce hogar»
19, domeka: 16:30




«Leviatan»
(Ongarri zinekluba)
23, eguena: 21:30



ESKERTZA

ANTXONI LARREATEGI ARENAZA

2015eko apirilaren 14an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

FRANCISCA ANSOLA AGIRREGOMEZKORTA

2013ko apirilaren 16an hil zen.

Zure irribarre goxoa eta maitasuna betirako izango dira gure artean.

Bihotzean zaramatzagunon partez.



I. URTEURRENA

ISIDRO ASTIGARRAGA AROCENA

"Katalotza"

2014ko apirilaren 12an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



IV. URTEURRENA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

Gure bizitzaren parte izaten jarraitzen duzu. Maite zaitugu.

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus



IV. URTEURRENA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

*Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir ezta
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.
Maitasunez, etxekoek.*

IV. urteurreneko meza asteartean,
apirilaren 21ean, izango da arratsaldeko
19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteko BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

EGUNA: apirilak 22, asteazkena
ORDUA: 19:00 - 20:30
TOKIA: Kultur Etxeko hitzaldi-gela

AZTERGAIAK:

1. Lehendakariaren AGURRA.
2. 2014an egindakoaren aurkezpen-balorazioa eta diru-kontuen memoria.
3. 2015eko lan-ildo nagusien eta aurrekontuaren aurkezpena.
4. Galdera-erantzunak.



TXARRIDUNA JATETXEA

Ermuaranbide 1 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 490

restaurante@txarriduna.com - www.txarriduna.com

- ✓ Igandetan ere zabalik.
- ✓ Apirilean eta ekainean, bazkaritarako bakarrik, 12:00etatik aurrera.
- ✓ Ekainean, berriz, bazkari eta afaritarako.